


2015- 2016

LANALDI

ENPRENTZAT ETA PROFESIOALENTZAT INTERESEKO INFORMAZIOA DUEN DOKUMENTUA



Antolatzailea:



empleo, emprendizaje, futuro

Laguntzailea:



PEGASUS YOUTH
EMPLOYMENT
CAMPAIGN



Novia Salcedo Fundazioa

2015-2016

NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA

Novia Salcedo Fundazioaren helburua gazteei gizartean eta lan munduan sartzeko prozesuan laguntza eskaintzea da. Horretarako, pertsonen, enpresen eta erakundeen eta erakunde publikoen artean balioa trukatzeko eredu berriak sortzen ditu, eta LanAldi programa horren adibide bat da.

ZER DA LANALDI?

LanAldik Euskadiko ikasleei orientazio profesional berritzailea eskaintzea du helburu, goi mailako ikasketak aukeratu aurretik zenbait tailerren eta lanean ari den profesional batekin izango duten esperientzia praktikoa baten bitartez.

Orientazio programa honekin bigarren hezkuntzako ikasle, ikastetxe, profesional, enpresa eta erakundeen partaidetza bultzatu nahi dugu.

ZER LORTU NAHI DA EGITASMOAREKIN?

Ekintza horien bidez, Lanaldi programa ondoren adierazten diren helburuak betetzera bideratzen da:

Enpresentzat eta profesionalentzat:

1. Enpresa barruan gizarte arduratsuagoa den jarrera **garatzea**. Izan ere, LanAldi programan parte hartzea, erkidegoan nahasteko modu erraza eta egokia baita.
2. Profesionalei, pertsona gazte bati bere lana zein den erakusteko aukera **ematea**, aholkuak emanez eta esperientziak partekatuz.
3. Euskadiko boluntarioritza korporatibo programa handiena elkarren artean **garatzea**.

Ikasleentzat:

1. Gazteak, bere lan proiektua bilatzeko edota sortzeko orduan izan behar duen **jarrera proaktiboaren garapena**. Horretarako, gazteak, bere lan etorkizunean eragina izango duten erabakiak hartzeko izan behar duen interesa bultzatuko da, beretzat interesgarri diren jarduera profesionalen benetako ezagutzaren bitartez.
2. Zenbait **gaitasunen garapena**, sorkuntza, berrikuntza, arriskuak hartzea, jarrera proaktiboa, planifikatzeko eta kudeatzeko trebezia...
3. Hezkuntza munduaren eta mundu profesionalaren arteko **tarteak murriztea**, zientziaren eta berrikuntzaren irudi hurbilagokoa eskainiz.
4. **“Etorkizuneko lanpostuak” ezagutzea**, parte hartzen duten ikasleek beraien aukeraketa akademikoak modu eraginkorragoan orientatu ahal ditzaten.
5. Ekonomiaren funtzionamenduaren eta enpresa edo erakunde orok dituen aukeren eta enpresen **jarrera etikoaren ezagutzea**.

Ikastetxeentzat:

1. Ikasleei, garapen profesionalean aukerak definitzeko orduan **orientabidea** emango dien egitasmoa eskaintzeko aukera ematea.
2. Ikastetxeak enpresetara **hurbiltzea**.
3. Hezkuntza eta familiaz aparteko erreferentzia eredu **hornitza**, ikasleak, inspiratuz, motibatuz, eta hori posible dela erakusten duten ikasketa prozesuetan nahastuz.
4. Hezkuntza **orientatzaileei laguntza** ematea, lan merkatuaren egoerari buruzko informazio erabilgarria eskainiz.

ZER ESKATZEN ZAIE PROFESIONAL BOLUNTARIOEI?

Lan jardunaldi batez, egun horretarako programatutako jarduera guztietan parte hartuko duen ikasle bat hartuko dute.



Horrela, gazteei hezkuntzaren eta trebakuntzaren garrantziari buruzko ikuspegi berria ematen zaie, beraien etorkizun profesionalerako zenbait alternatiba erakutsiz, ikasleak lan munduaren aukeretan eta exijentzietan sartzen dira, XXI. mendeko profesional gisa behar duten trebakuntzarako prestatuz.



Programaren ideia, gazteari lan jardunaldi tipiko bat erakustea da, baina sektoreari buruzko ikuspegi orokorra emanaz, etorkizuneko aukerak erakutsiz, eta, ahal den neurrian, hezkuntzaren eta lana burutzearen arteko lotura ezarriz. Halaber, amestutako helburuak lortzeko esfortzuaren eta lanaren kulturak duen balioa azpimarratzea ere bilatzen da.




Zuen lana erabat garrantzitsua da! Programaren arrakasta, ikaslearekin egindako lanean jarritako interesaren, maitasunaren eta dedikazioaren araberakoa izango da neurri handian!

PROFESIONALEN IZEN EMATEA

Profesional boluntarioentzako izena emateko aukera zabalik dago beti programaren web orrian. Horrez gain, bertan, aurreko edizioei buruzko informazioa eta parte hartzen duten pertsonentzako orientazio materialak ere aurki daitezke.

www.lanaldi.es



Ikasleak
Ikasle bat bazara eta goi ikasketak batzuk aukeratu baino lehen lan mundua ezagutu nahi baduzu, hau da zure aukera
[Jarraitu >](#)

Profesionalak
Zure profesioa erakutsi izateko gazte bati, eta lagun izateko behar bada zure izan es zenuen aukera baten bidez
[Jarraitu >](#)

Ikastetxeak
Programarekin elkar lan egin eta zure ikasleei profesioak ezagutzeko oportunitatea eskaini
[Jarraitu >](#)

LanAldi batxilergoko 1. mailako ikasleei zuzendutako "in situ" orientazio programa da, euren etorkizunerako erabakiak hartzea erraztea helburu duen programa. Programaren muina, gazteen interesekin bat datorren esperientzia profesional bat izatea da, haiek aukeraturako lanpostuan egun bat igaroko dutelarik.

Batxilergoko 1. Mailako ikasleei orientazio profesional berritzailea ematea dugu helburu, goi mailako ikasketak aukeratu aurretik, zenbait tailerren eta lanean ari den profesional batekin izango duten esperientzia praktikokoaren bitartez.

XXI. mendeko profesionalak izateko prestatu; hezkuntza eta gaitasun profesionalen garrantzia gogoratu eta alternatiba profesional ezberdinak ikusi.

Lanaldian profesionalaren ohiko egun bat bitartez gain, sektoreari buruzko ikuspegi orokorra hartu, etorkizuneko aukerak ikusi, eta, hezkuntzaren eta lana burutzaren arteko lotura ezarri da. Halaber, amestutako helburuak lortzeko esfortzuen eta lanaren kulturak duen balioa azpimarratzea ere bilatzen da.

Helburuak

Izen ematea:

Este formulario tiene como objetivo recoger los datos de los profesionales voluntarios que van a soportar a un joven en el proyecto Lanaldi - Lanetan biltari por un día. Presta especial atención a los campos marcados con asterisco.

Serán sus datos de acceso:

E-mail:

D.N.I.: Con guión y letra
formato 12345678-x

Emaila eta NAN-a izango dira programaren kudeaketa plataformako etorkizuneko jardueretarako "erabiltzailea" eta "pasahitza" eta, ondorioz, gogoratu egin beharko dituzu.

Nola egin inskripzioa?

Bete ezazu hurrengo formularioa Parte hartu nahi baduzu, sarbide-datuak ipini eta DATUAK EGUNERATU

Bete ezazu formulario hau:

Izena: <input type="text"/>	Herrialdea: <input type="text" value="- España"/>
Abizena: <input type="text"/>	Probintzia: <input type="text" value="Seleccione una opción"/>
N.A.N.: <input type="text"/> <small>formato 12345678-x</small>	Hiria: <input type="text"/>
E-mail: <input type="text" value="direccion@email.com"/>	Postal Kodea: <input type="text"/>
Telefonoa: <input type="text"/>	Helbidea: <input type="text"/>
Sexua: <input type="radio"/> Mutila <input type="radio"/> Neska	Jaioteguna: <input type="text" value="dd/mm/aaaa"/>
Ikastetxea: <input type="text"/>	Motibazio gutuna: <input type="text" value="Lerro gubietan zure motibazioiak, interesak... zeintzuk diren esagizu."/>
Babxilergo Maila: <input type="text" value="1º"/>	<small>995</small>
Arloa 1: <input type="text"/>	
Arloa 2: <input type="text"/>	
Pasahitza: <input type="text"/>	<small>Azentu-markak eta fi-ak baliogabeko karaktereak dira</small>

Apuntatu

Jarri arreta berezia eremu hauei:

- **Zein helbidetan jasoko den** → ikasleari harrera egingo zaion lekuaren helbidea, ahalik eta zehaztasun gehienez adieraztea komeni delarik.
- **Hizkuntza** → Lan jardunaldia zein hizkuntzatan egingo den adierazten du. Posible bada, komenigarria da programak sustatzen dituen hiru hizkuntzak hartuko dituzten jarduerak planifikatzea.
- **Gazte kopurua** → 1.000 gazteren kopurura heldu nahi dugunez ikasturtean zenbait ikasle hartzera anima zaitezkeen adieraziko du. Profesional parte hartzaileek programarekin duten gogobetetze maila 8,8 puntutakoa da (10a izanik maximoa).

Gazteari harrera egingo zaion lan esparrua*:

Deskriba ezazu zure lanpostua*:

Apuntatu

(Emandako datuak LOPD-ean ezarritako irizpideen arabera tratatuko dira eta ez dira erabiliko veste helburuetarako)

- **Lan eremua**→ profesionalak bere jarduera aurrera eramaten duen lan eremua aipatzen du, ez haren prestakuntza akademikoa.
- **Lanpostuaren deskribapena**→ Mesedez, sartu ahalik eta deskribapen zehatzena, eremu horrek interes berezia baitu programan parte hartzen duen ikaslearentzat.

Hiru lurretatoko enpresen eta erakundeen konpromisoa bilatzen dugu, bertako profesionalak mobilizatzeko, lan jardunaldi batean profesional batekin aritzeko esperientzia biziko duten 1.000 ikasleren kopurua lortzeko.

Programaren xehetasunak ezagutzeko gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, helbide hauetan egin dezakezu:

lanaldi@noviasalcedo.es

Izena eman!

LAGUN EGITEA PLANIFIKATZEA

Hasi aurretik

Profesionalak nahi beste plaza eskaini ditzake urtean zehar.

Egun berean bi ikaslerekin jar daiteke hitzordua gehienez.

Gazteak plaza aukeratu ondoren, zurekin harremanetan jarriko da, zure helbide elektronikoaren bitartez, bion artean topaketaren eguna ezartzeko.

Oso garrantzitsua da zure postontzia txekeatzea, eta azaroaren 4an komunikaziorik egon ez bada, Fundazioari jakinaraztea.

Posta elektronikoz egindako lehenengo harreman horretan oso garrantzitsua da ikasleari jardunaldiaren alderdi garrantzitsuenak jakinaraztea, ordutegia, jarduerak eta plan orokorrak, besteak beste.

Komenigarria izango litzateke zuk ere zure burua aurkeztea eta informazioa partekatzea, ikasleari giro lasaia sentitzen laguntzeko, erosoago senti dadin, galderak egiteko orduan.

Komenigarria da telefono mugikor zenbakiak trukatzeta, edozer gertatzen bada ere.

Antolatu egun horretarako agenda ikasleari eskaini beharreko arreta eskaini ahal izateko.

Egun horretarako diseinatuko dituzuen jardueren, eta lanbidearen “zirrikituak” transmititzeko gaitasunaren arabera, ikaslea bere etorkizunari buruzko ideia argiagoeekin itzuli ahal izango da ikastetxera.

Gogoratu programaren helburua gazteari lan egun tipikoa nolakoa den erakustea dela, baina sektoreari buruzko ikuspegi orokorra emanez, etorkizuneko aukerak erakutsiz, eta, ahal den neurrian, hezkuntzaren eta lanaren arteko lotura ezarriz. Halaber, esfortzuaren eta lanaren kulturak amestutako helburuak lortzeko duen balioa azpimarratzea ere bilatzen da.

Ez da enpresara egingo den bisita gidatua, baina posible izango litzateke jardunaldi horretan beste departamentu batzuk erakustea.

JARDUNALDIRAKO IRADOKITZEN DEN ESKEMA

Argi dago programak aldaketak jaso ahal izango dituela, lanbide bakoitzaren berezitasunak kontuan izanik.

- 9:00etatik 10:00etara – ikaslea iristea
- 10:20tik 14:00etara – profesionalak programatutako jardueren garapena.
- 14:00etan – bazkaria
- 15:30etatik – 17:00etara – profesionalak programatutako jardueren garapena
- 17:00etatik – 17:30etara – amaierako bilera eta jardueraren ebaluazioa.

Parte hartzen duten enpresen/profesionalen esku ON-LINE gogobetetze galdetegi dago, eta zuen jarduerak amaitu ondoren, galdetegi hori bete beharko duzue. Mesedez, eman minutu batzuk horiek betetzen, informazio hori oso garrantzitsua baita hobetu ahal izateko.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Ikasturtean zehar nahi beste ikasle jaso ahal izango dituzu, baina ez 2 pertsona baino gehiago egunean.

Egun zehatza eta jardueraren ordutegiak parte hartzen duen ikaslearen eta profesionalaren artean definitu beharko dira.

Kontuan izan behar da ordutegi profesionalak ez datozela bat ezinbestean ikastetxeko ordutegiekin, eta, ondorioz, malgutasuna eskatzen dizuegu, ordutegietara egokitzeko.



Gogoratu programaren helburua, ikasleek lanbidearen “zirrikituak” ondo ezagutzea dela. **Ez da enpresara egingo den bisita gidatua.** Landu beharreko gai nagusiak hauek dira:

- Garapen profesionalerako oinarritzko gaitasunak, pertsonalak zein profesionalak.
 - Niri dagokidan lanean
 - Nire lan kooperatiboan eta besteekin izan beharreko erlazioan.
 - Nire gogoeta edo ikasketa lanean
- Nire lana antolakuntza/departamentu prozesu baten barruan eta hori, aldi berean, erakundearen barruan.
- Lanbidearen alderdi garrantzitsuenak.
- Erakundearen, sistemaren, alderdi garrantzitsuenak.
- Ahalik eta lan dinamika errealearen antolakuntza, lan talde barruko bilerekin, bezeroekin edo beste departamentuekin egin beharreko bilerekin, bulegotik kanpo dauden proiektu jakinei bisitak eginez.

Eta jakina, ez ahaztu zuen lankideei programari eta egun horretan bizi izango den egoerari buruzko informazioa ematea/gogoratzea. Beraien konplizitatea bilatu eta iradokizunak jaso ditzakezue!

BAZKARIA ETA LANTOKIRA JOATEA

Komenigarria da bazkariaren xehetasunak aurretik prestatzea, alderdi hori zuen kontura izango da eta. Ona izan daiteke bazkariaren ordua programaren zeharkako alderdiak lantzeko erabiltzea. Ikaslearen helburuak, ikasketa orduetatik kanpo egiten dituen jarduerak, boluntariora jarduerak, zaletasunak, bokaziozko interesak... horiek guztiak lanbide bat aukeratzeko orduan bideratu daitezkeen modua aztertzen ahaleginduz.

Joan-etorriei dagokienez, komenigarria izango litzateke profesionalak erraztasun guztiak ematea ikasleei, zuen lantokira heltzeko. Batez ere, garraio publikoa erabiliz heltzea hain erraza ez den enpresen eta erakundeen kasuan, oso seinaleztapen onik ez duten industriguneetan edo teknologia elkartegietan, adibidez.

ASEGURUA

Novia Salcedo Fundazioaren LANaldi. Lanetan Blai!! programan parte hartzen duten ikasleek, jarduera garatzen den bitartean izan daitezkeen gertakariak babesten dituen aseguria izango dute.

Eta, jakina, ez hartu beharrezkoa ez den arriskurik.

DBLO-LOPD

LANaldi programan parte hartzen duten ikasleek, programaren dokumentazioan eta hedapenean baino erabili ezin daitezkeen argazkiak egiteko baimena bete dute.

NSF-tik argazkiak edo bestelako euskarri grafikoak egiteko eta guri bidaltzeko gonbidapena egiten dizuegu, guretzat ezinezkoa baita jarduerak aurrera eramaten diren eszenatoki guztietan egotea.

Hala ere, kontuan izan behar da adin txikikoak direla, eta beraien datuak eta irudia kontu handiz erabili behar direla.

LAN ORIENTAZIOA ETA GENEROA

Genero ikuspuntutik Lanaldi programak lan merkatuko hainbat eragile soziokultural eta ekonomiko kontuan hartzen ditu, hori dela eta programan hurrengo gaiak landuko dira:

- Norberaren gaitasun pertsonalak izan daitezela ikasketa aukeraketaren arrazoiak, eta ez genero eraginen ingurukoak.
- Hainbat ogibideetara lotuta aurkitzen diren estereotipoekin amaitzea.
- Emakumeen belaunaldi berriei ekintzailatza espiritua sustatzea.
- Bai gizonezkoen zein emakumezkoen gizarte eta familia erantzukizun partekatua garrantzia eta beharra gazteei helaraztea.
- Hainbat sektoreetan emakumeek goiko postuetara heltzeko dituzten zuzengabeko arazoetatik kontzientziatu